

Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa

Aspaldiko asmo bat burutu ondoren funtadu zen "Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa". Oraitxe da urtebete Joxeba Jaka, zoritxarez hil zenetik. Geroztik, hark eta haren inguruan sortutako enpresek osatu zuten aipatu fundazioa. Erabaki nagusien artean, "Joxeba Jaka bekak" sortzea erabaki zuten. Momentu horretan, bestalde, lehiaketetetan nolabaiteko krisialdi bat sumatu zenez, are eta erabakikorrago hartu zen bide hau. Horren azbera sortu zen talde bat bekatu hauek deitu, aukeratu eta zeini eman erabakitzeko. Lagunen artean azken denboran belarri-ara komentatzen zenez, egungo idazle gehienen lanak hari begira jarri ziren zenbait editorialek gauza berriak publikatzeko ere komeriak zitzuztela.

Azkenean jakin berri da zenbat lan aurkeztu diren beka horietara eta zeintzuri eman zaion beka hori: 22 proiektu aurkeztu dira nobelagintzan, 10 saiakeran, 9 poesian eta zortzi haurren poesia arloan.

Bekaz sarituak izan direnak honako hauek dira: Koldo Izagirre eta Andoni Egaña nobelan, Iñigo Aranbarri eta Rikardo Arre-

gi poesian, Joanex Urkixo eta Patxi Zubizarreta haur eta gazte literaturan eta Jon Alonso saioan.

Beraz, beka jaso duten zenbait hitz gailurreko izenak dira euskal literaturan. Angel Lertxundik eman zuen bi nobela proiektuen berri: "Mertxa izeneko agirretar baten ibili beharrak" lanaren idotik, "modu landuagoan baina hari hartatik tiratuz, pertsonaia bakar bateko nobela baten proiektua aurkeztu du Koldo Izagirrek", Anduren hitzetan.

Andoni Egañarena sorpresa izan zen askorentzat, baina gauza jakina denez, sarritan idatzi du Andonik prosaz eta trebetasun handiz, batez ere ipuinak. Baina hau izango da bere lehen nobela: "Mende honetako bi une historiko, gerra aurrea eta 60ko hamarkada lotzen ditu bere proiektuak" esan zigun Anduk. Nobela proiektu hauek, bakoitzak 2.000.000ko diru laguntza eskuratu du.

Poetak ere ezagunak dira gure artean: Iñigo Aranbarri eta Rikardo Arregi. Joxerra Garciak egin zuen hauei emandako beken azalpena; Iñigoren "iruditeri aberatsa eta koloretsua" aipatu zuen eta

Rikardo Arregiri buruz, "poemen sentsualtasuna", biak 1.000.000ko bekaren laguntza.

Ikerketa arloan beka bakarria eman dute eta hau Jon Alonsorentzat izan da: "Ikerketak egon behar du, baina ikerketa hori ikuspegi pertsonal batez eta hizkuntza jasoan agertzea dira saio literario baten ezinbesteko baldintzak". Horregatik eman dute

beca bakarria, hau ere milioi batetkoa.

Gazte literaturan ere beste bi beka eman dira, bakoitza 1.000.000koa, Joanex Urkixok, gazteentzat abenturaz betetako nobela baten proiektuarengatik eta Patxi Zubizarretak, gatetxoentzat "estilo xume eta fineko" ixtorio baten proiektuarengatik.

G.E.